# HOGOI TA BIGARREN ERAKASPENA. 

## (I) ELHEKETA. ASTE HUNTAKO ELHEPIDEA.

1 Nafarroako errege bideek zonbat luzetasun dute?
2. Noren zergekin eginak dira?
3. Juan de HUARTE nun sortu zen. Haren liburuaren izena

## (II) ZER GINEN eta ZER GIREN 3

Horrek erran nahi du badugula bost ehun Nafartar bakhotxarentzat eskola bat. Ba eta eskola berri horiek denak eginak herrien nahikundez eta beren diruarekin.

Zoazte, zoazte holakorik ikhustea Ebro-tik bertze aldeko behere hetarat...

Eta erregebidetatik zer erran?

Espainiak egin izan behar balitu gure erregebideak, ukhain ginituena orai ditugunak, 2.600 kilometro hurbil, eta heien arthean sei mendiz bertzaldeko Eskual-herrian sartzen direnak? Atx, ze aphentzia!

Eta halako bertze xehetasunik anitz gauzetan ez ditut emaiten, irakurlea ez akhitzeko.

Erran dezagun berriz ere: gure eskuetan balin baginitu behar ditugun ahalak lehengo denboretan bezala gure legeen arau bizitzeko, ethorkizun ederra igurika ginezake gure herri maitearentzat.

Bainan damuz, arrotzari estekatuak girenez ber[7] ez gira higitzen ahal gure xedeak helburuат helarazteko.

* (*La Voz de Navarra*, 1934/3/14)

### GURE GIZONAK

### JUAN DE HUARTE *

Baxenabartar yakhintsu hau Doniane Garazin sorthua zen 1530-an.

Mendiz hunaindiko Nafarroa Espainiarrek menperatu doan, 1512-an, lauetan hogoi urthez oraino iraun zuen gure erresumak edo nazioneak, nahiz ttipitua, mendiz haraindiko aldean, Frantziari eratxiki[1] gabe.

Beraz, gure yakhintsua etzen Espainiarra, nahi dutena erranikan ere Ebro-tik beste aldekoek, eta etziren ere San Frantsisko Xabierrekoa eta Martin Azpilikuetakoa, hiruak sorthuak Nafarroako erresuma xutik zelarik.

Erdaraz eskolatuak zirela eta Nafarroa-tik kanpo hilak?

Horrek deus eztu erran nahi, eta eztu ezeztatzen erraiten duguna.

Juan de Huarte (Juanes Uhartekoa) etzen bakharrik denbora hetako mediku aiphatuenetarik bat, bana asmatzaile gaitza, gizonaren adimenduko eta arimako zolan barnago sartu zena, gure gogoaren ikhertzaile eta ohartzale[2] haundia, bihotzaren ezagutzaile zorrotza eta argia.

Bere gogoeta eta oharmen horietaz egin zuen liburu bat, Examen de Ingenios deithua, eta hain aiphu eta omen haundia ukhan zuen, nun Frantzian, Angleterran, Alemanian eta Italian berehala itzuli zuten bere hitzkuntzetarat, eta Europa guzian hedatu zen gure Huarteren yakitate haundia.-

Maxex Handi Iruña

## (III) ADITZ IKASKUNTZA

31. Zoazte - 32. Behar balitu - 33. Erran dezagun - 34. Igurika ginezake

31 JOAN - Imperatif. Subjonctif -

| | | |
|---|---|---|
| Hi hoa | :Va | ni noan = que j'aille |
| Zu zoazi | = Allez | hi hoan = |
| Gu goazin (goazen) allons | | zu zoazin = |
| Zuek zoazte | : allez | hura doan = |
| | | gu goazin = |
| | | zuek zoazten = |
| | | Hek doatzin = etc. |

32 UKAN. Suppositif. Eventuel. Eventualité prochai[ne]

| O.S. 1ère forme | | O.P. | |
|---|---|---|---|
| Nik banu | = si je l'avais | banitu | = si je les avais |
| Hik bahu | | bahitu | |
| Zuk bazinu | | bazinitu | |
| Harek balu | | balitu | |
| Guk baginu | | baginitu | |
| Zuek bazinute | | bazinituzte | |
| Heiek balute etc | | balituzte etc. | |

33 UKAN - Subjonctif présent.

| O.S. + radical | | O.P. | |
|---|---|---|---|
| Nik ukan dezatan | (que je l'aie) | ukan ditzatan | (Que je les aie) |
| Hik " dezakan/nan | | " ditzakan/nan | |
| Zuk " dezazun | | ditzazun | |
| Harek " dezan | | ditzan | |
| Guk " dezagun | | ditzagun | |
| Zuek " dezazuen | | ditzazuen | |
| Heiek " dezaten etc. | | ditzaten etc. | |